

Psikologo Euskaldunen III. Topaketa

Eibar, 2019-11-16

Bilbon dagoen Sortzen Psikoterapia Humanista Zentruan psikoterapia euskaraz egiten dugu. Gurean identitarioa da, hasieratik argi izan nuen euskaraz lan egin nahi nuela horregatik hasieratik publizitatea, txartelak, webgunea euskaraz ta gaztelaniaz egin nuen.

Internetetik datorren jendea 2 arrazoi nagusigatik da:

- euskaraz lan egiten dugulako.
- Psikoterapia Humanista egiten dugulako.

Beraz honek bereizten gaitu ta honek jendea ekartzen digu.

Bikote terapia, banaka ta taldekoa egiten dut. Nere beste lankide batzuk ume ta nerabeekin egiten dute lan. Danok zerbitzua euskaraz ta gaztelaniaz eskaintzen dugu.

1. tailerra UEUn euskaraz egin nuen ta hortik aurrera Zentroan, euskaraz eta gaztelaniaz. Gaur egun datorren jendearen arabera, euskaraz edo gaztelaniaz egiten dugu. Batzuetan denek euskara ulertzen badute ta adostuta askatasun linguistikoa ematen dut.

Bulegoan paziente gehienak euskaldunak dira, asko preso ohiak eta eurengandik etorritakoak...

Kartzeletan euskal preso politikoei asistentzia psikologikoa eskaintzen diet. Bertan egoera desberdina da, Madriletik asistentzia gaztelaniaz eta interbenitua egin behar dudala erabakita dator. Duela 18 urte, honetan hasi nintzenean, kartzela bakoitzak erabakitzen zuen zein baldintzatan lan egin behar nuen, orokorrean gaztelaniaz, teknikari bat aurrean genuelarik (psikologoa, medikua...) edo lokutorioetan, nahiz eta batzuetan ni bakarrik eta euskaraz egiten baimentzen zidaten. Urte gutxitara Madriletik erabakia zentralizatu zen. Gaur egun eskaera judizialen bidez, bakarrik eta euskaraz egitea lortzen gabiz.

Euskarak kasu honetan bi arrazoi nagusiengatik garrantzitsua da, batetik, beste pertsona bat gurekin badago, psikoterapian ezinbestekoa den Konfidentzialtasuna bermatzeko modu bakarra delako eta bestetik euren ama hizkuntza euskara bada emozioetara heltzeko askoz errazagoa delako. Bestalde lotura terapeutikoa egiteko, euskaldunen artean euskaraz askoz errazagoa lortzen da.

Maritxu Jimenez